

MOZIO ARRUNTA

Eskola-Kiroleko lehiaketak berreskuratzeari buruzkoa.

EH BILDU udal taldeko bozeramaile Reyes Carrere Zabalak, Udalbatzaren Organo Araudiko 98. artikulua oinarri, honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du, Eskola-Kiroleko lehiaketak berreskuratzeari buruzkoa.

JUSTIFIKAZIOA

2022ko urtarrilaren 4an EAEko Hezkuntza Sailak ateratako protokoloa ez da ulergarria. Protokolo horren atzean zer dagoen ez da ulertzen.

Mundu guztiak uler dezan zer gertatuko den protokolo horrekin, adibide bat jarriko dugu: haur batek ikastetxeko eskola kirolean ezingo duela lehiatu. Baina haur horrek berak, klub-eko lehiari –edozein kirolean- lehiatu ahalko duela. Horrek zer arrazoi epidemiologiko dauka?

Ez da ulertzen ere behin eta berriro fokoa haurrengan eta adingabeetan jartzea eta bereziki osasuna sustatzera datozen aktibitateetan indarra egitea. Egia da protokoloak soilik lehia debekatzen duela egoera eta eremu zehatz batzuetan intzidentzia metatuari lotuta. Baina gizarteak duen txertaketa mailarekin, eta adingabeek gara dezaketen larritasun maila kontuan hartuta, badu zentzurik osasun biologiko neurriak intzidentzia metatuari lerrotatzea soilik? Erkidego bakarra gara Estatu Espainiarrean gisa horretako neurria planteatu duena.

Hezkuntza protokoloak ez du inolako koherentziarik gainerako adin tarteetako kolektiboei bideratzen zaizkien osasun neurriekin. Ez eta, pandemia osoan zehar, ikasten joan garen birusaren kutsadura transmititzeko arrisku faktore eta eremuekin. Ez da koherentea, gainerako kirol eremu eta egituretan lehiaketa ahalbidetzen denean, eta gainera aipaturiko kirol lehiaketa horiek adingabeen kirol lehiaketak baino mila aldiz ondorio kaltegarriagoak sortzen dituztenean, pilaketa, kontaktu eta mugimendu fluxuei dagokienez. Ez da koherentea, helduak euren eremu sozialean apenas mugarik ez dutenean eta eremu horietan, trazabilitaterako zailtasunak inon baino nabarmenagoak direnean.

Gisa horretako neurriek ez dute laguntzen osasun mentala eta bizitzarako funtsezkoak diren ohiturak garatzen. Baizik eta eragin zuzena daukate: adingabeen ohituretan, sedentarismoan, buru osasunean. Zer da hobea eta merkeagoa? Jolasa eta mugimendua sustatzea edo psikiatreakin kontsulta gehiago bideratu behar izatea? Edo adingabeei elikadura dietak jarri behar izatea? Edo haurrek astebukaeretan ordu gehiago pasatzea helduen eremu sozialetan, non alkoholak presentzia nabarmena duen? Ohiturak, ekintzekin, praktikarekin sustatzen eta elikatzen dira.

EH Bildu talde politikoa

Grupo político EH Bildu

Ijentea, 1 - 20003 Donostia
Tel. 943481027 eh_bildu@donostia.eus-- www.donostia.ehbildu.eus -

Beraz, horregatik guztiarengatik, EH BILDU udal taldeak honako MOZIO ARRUNT hau aurkezten du:

1.-Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen dio Eusko Jaurlaritzari Hezkuntza Sailak 2022ko urtarrilaren 4an argitaraturiko COVID-19 pandemiari aurre egiteko protokoloa egokitu dezala adingabeen osasun orokorra indartzen duten eta osasun sustapena eta prebentzioa indartzen duten neurrietara, eta adingabeek COVID-19 arekiko gara dezaketen larritasun mailara; eta bereziki indartu ditzala osasun sustapenean sakontzen duten jarduerak (jarduera fisikoa, kirola eta oro har bizitza aktibo osasuntsuan eragiten dutenak).

2.- Donostiako Udalbatzak hertsatuki eskatzen die Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari eskola-kiroleko lehiak berreskura ditzatela normaltasunez, klubean zein beste egituretako kirol lehiaketetan adingabeek egin dezaketen jarduerekin osasun neurri koherenteak izateko, eta aldi berean segurtasun handiena izan ditzaketenak susta ditzala.

Donostian, 2022ko urtarrilaren 7an

Reyes Carrere Zabala
EH Bildu udal taldearen bozeramalea